

Prensa oharra

EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolaren VII. Topaketa

HAURTZAROAN JATEKO OHITURA OSASUNGARRIAK HARTZEAREN GARRANTZIA LANDU DU EROSKI FUNDAZIOAK

- *"Jateko gogoa garunean dago; nola landu jateko ohitura osasungarriak gure seme-alabengan"* izenburuarekin, adin goiztiarretan elikadurak duen garrantzia analizatu dute nutrizio, zientzia eta psikologia arloko adituek
- Haur gizentasunari aurre hartzeko konpromisoa jasota dator EROSKIk orain dela gutxi berriro dituen Osasun eta Iraunkortasun konpromisoetan

Donostia, 2018ko azaroaren 16a.- [EROSKI](#) Fundazioak gaur goizean egin du bere [Elikadura Eskolaren](#) zazpigarren topaketa Donostiako Basque Culinary Centerren, honako titulu honekin: *"Jateko gogoa garunean dago; nola landu jateko ohitura osasungarriak gure seme-alabengan"*. Ekitaldiaren irekieran, hitza hartu dute Basque Culinary Centerreko Berrikuntza arloko zuzendariak, Begoña Rodriguezek, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak, Juan Jose Aurrekoetxeak, eta EROSKIk presidentek, Agustin Markaidek.

EROSKIk presidentek eskerrak eman dizkie bertaratu diren nutrizio, psikologia eta osasun arloko profesionaleri, Basque Culinary Centerri, Eusko Jaurlaritzari eta Donostiako Udalari. *"EROSKIk era aktiboan dihardu jateko ohitura osasungarriak gizartean zabaltzearen eta erakustearen alde. Espero dut topaketa honek balioko duela orain urte batzuk adituek, erakundeek eta EROSKIk abiatu genuen bidean sakontzeko eta lagunduko duela alderdi guztien artean hobekuntza proposamenak bilatzeko"*.

Gizartearen ongizatean laguntzeko asmoz eta haurretatik ohitura osasungarriak sustatzeko asmoz, aurten Alvaro Bilbao eduki dugu, psikologian eta neurologian doktorea bera eta zenbait argitalpen zientifikoren eta libururen egilea.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Horrez gain, Marta Verona nutrizionista eta seigarren Masterchefaren irabazleak hitzaldi bat eman du: "sukaldaritza modernoko eta osasungarriko teknikak hauren elikadurari begira".

Ekitaldian, mahai inguru bat izan da, "guraso sanoak, haur sanoak" izenburuarekin, eta bertan izan dira Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendari Juan Jose Aurrekoetxea eta EROSKI Fundazioako zuzendari Alejandro Martinez Berriochoa. *"EROSKI Fundazioan 2012tik daramagu familiak kontzientziaz adin goiztiarretatik elikadura ohitura onak hartzearen garrantziaz, osasunean haz daitezten. Horrez gain,"* esan du Alejandro Martinez Berriochoa— *"[Osasun eta Iraunkortasun arloko gure Konpromiso](#) berritueta, azpimarratuta dakargu haur gizentasunari aurre hartzearen garrantzia; konpromiso horrek proaktibotasunean jartzen du ardatza gaitzari aurre hartzeko orduan".*

VII. Elikadura Topaketaren amaieran, hitza hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendekotasunaren Arretarako zuzendari nagusiak, Txaro Rodrigok.

Ia hamar urte gogoeta espazioak sortzen

Herritarren osasunarekin loturik diren gaur egungo gai esanguratsuen inguruan gogoeta espazio bat eskaintzeko asmoz, EROSKI Fundazioak topaketak sustatu ditu 2009tik, eta topaketa horietan, osasunaren, nutrizioaren eta psikologiaren arloko profesional ugariak parte hartu dute.

2012an, Elikadura eta Ohitura Osasungarriari buruzko Heziketa Programa jarri zuen martxan. Haren helburua izan da ikasleei ikusaraztea zein garrantzitsua den modu orekatuan elikatzea eta bizimodu osasungarria egitea. Joan den ikasturtean, guztira, Espainia osoko Lehen Hezkuntzako 460.401 ikaslek eta 3.192 ikastetxek parte hartu zuten. Kooperatibaren gogoeta da bi milioi haur eta haien familiak heztea 2025erako.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)